

MEATZEETAKO HARRI BITXIAK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuabarrena

Cork (Irlanda), 1837. Mary Harris Jones (1837-1930) ekintzaile sindikalista, gerora *Mother Jones* izenez ezagun egingo zena, jaio zen. Txikitan, familia-rekin batera Ipar Amerikara joan zen, Irlandako Gosete Handitik ihesi. AEBetan irakasle eta jostun lanetan aritu zen, baina 1867an senarra eta seme-alabak galdu zituen sukar horiaren erruz, eta handik aurrera langileen eskubideak –batez ere meatzarietak– defendatzen lan egingo zuen: grebak antolatu zituen eta, besteak beste, Munduko Industria Langileak erakundearen sortzaileetako bat izan zen. *Agitatzaille guztien amona* ezizena ere irabazi zuen azken urteetan. Baina agitatzaille guzti guztiak ez zituen babestu. Sufragistak, esaterako: emakumeen bozkatzeko eskubidearen aurka baino, mugimendu sufragistari hartzen zion kutsuaren aurka zegoen. Klase altuko emakumeen kontutzat zeukan eta boto eskubidea emakume langileen arazo ekonomikoak estaliko zituen beldur zen. “Plutokratek beren emazteak antolatu dituzte”, zioen, “sufragioarekin entretentuta dauzkate”.

Domitila Barrios Chungara (1937-2012) boliviarrak Siglo XX meatzean jaio eta hazi zen. Senarra meatzaria zuen eta haren eskutik hasi zen meatzarien eskubideen aldeko borrokan. Besteak beste, Hugo Banzer jeneralaren diktadura mi-



Emakumeak meatzean lanean Galesen, Lehen Mundu Gerra garaian


MINING REVIEW

litarraren amaiera eragingo zuen gose greba abiatu zuen 1977ko Eguberrian, beste lau emakume meatzarirekin batera. Gobernuaren jazarpenetik ihesi joanda, aitak marxismoari buruzko hainbat liburu helarazi zizkion eta orduan konturatu zen pentsatzen zuena han idatzita zegoela.

Gurean, Dolores Ibarruriren (1895-1989) senarra ere meatzaria zen. Espainiako Alderdi Komunistaren idazkari nagusia izango zenak, 1918an erabili zuen lehenengoz *Pasionaria* ezizena, *El minero vizcaíno* (meatzari bizkaitarra) izenburuko artikulua sinatzeko. Ibarruri Gallartako meatzeetan jaio zen, Abanto-Zierbenan, eta egun hortxe dago Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa. Egunotan, eta uztailaren 31a arte, *Lidergo femeninoak meatze-eskualdeetan* izeneko erakusketa dago ikusgai bertan. Aipatutako hiruez gain, meatzeguneetan

lidergo rola hartu zituzten beste zazpi emakumeren ibilbideak jasotzen ditu, Jatorri geografiko, ideologiko eta kultural desberdinak dituzte hamarrek, baina batzen dituzten ezaugarriak ere bai.

Ruben Vega Oviedoko Unibertsitateko historialari eta erakusketaren komisarioaren hitzetan, “ekintzatik abiatuta joan ziren beren profil ideologikoa osatzen, eta ez alderantziz”. Gainera, denak tradizionalki maskulinoa izan den eremuan, “testosteronaz betetako meatzeen munduan”, egin zieten buru gizoni, rol nabarmenak lortuz, baina emakumeen menpeko roletik, “amen eta emazteen roletik” abiatuta. Beren burua ez zuten feministatzat eta militante feministaren definizio zehatzak ere ez litzuzke barne hartuko, “baina *de facto* baziren, menpeko rol horri aurre egitea lortu zutelako”. ■



Hatz-markak, 4.000 urteko sinadurak

1886an, Charles Darwinen lehengusu Francis Galtonek pertsona guztiek beren hatz-marka bereziak zituztela baieztatu zuen, eta bi marka berdina aurkitzeko probabilitatea ere kalkulatu zuen: 64.000 milioitik bat.

Dena den, hainbesteko zehaztasunik gabe ere, Antzinarotik zen ezaguna hatz-marken ezaugarri bereizgarri

hori. Duela 4.000 urte babiloniarrek kontratuak sinatzeko erabiltzen zituzten; transakzioen nondik norakoak jasotzen zituzten buztinezko oholetan aurkitu dira. Antzinako Txinako buztinezko zigiluetan ere aurkitu dituzte. Eta XV. mendeko Pertsian ere gobernuak hainbat agiri ofizial hatz-markez sinatu zituzten. ■